

GALDÓS, ETXEITA, RIZAL – MADRIL, MUNDAKA, MANILA: UKAPEN KOLONIALAREN ETA OZEANO BARE- ATLANTIKO HISPANIARREKO ARTIKULAZIO (POST)INPERIALISTEN INGURUAN

Joseba Gabilondo

Michigan State University

joseba@joseba.net

Aipatzeko gomendioa || GABILONDO, Joseba (2013): "Galdós, Etxeita, Rizal – Madril, Mundaka, Manila: ukapen kolonialaren eta Ozeano Bare-Atlantiko hispaniarreko artikulazio (post)inperialisten inguruan" [artikulu linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9, 13-41, [Konsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-joseba-gabilondo-eu.pdf >

Ilustrazioa || Albert Masias

Itzulpena || Izaskun Larrañaga

Artikulu || Jasota | Argitaratuta: 07/2013

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honek «ukapen koloniala»-ren artikulazioak aztertzen ditu Pérez Galdósen (*Fortunata y Jacinta*), José Manuel Etxeitarren (*Josetxo*) eta José Rizalaren (*Noli me tangere*) lanetan, Ozeano Bare-Atlantiko hispaniar espazio bat atzeko asmoz, definizioa Ozeano Barearen eremuaren izaera autobaztertzailetik abiatuta. Artikuluak Ozeano Bare hispaniarrean eta haren ukapenean jartzen du arreta, hiru eleberrietan Manilari egindako erreferentzien bidez artikulatua agertzen den bezala. Helburua nola, ikuspegi hau abiapuntutzat hartuta, hiru tradizio literarioen ukapen koloniala aztertu daitekeen erakustea da, horretarako. Espainiako historia inperialistaren edozein jabetze espainiar edo hispanista deserdiratuz eta zatituz. Artikuluaren ondorioetatik postulatuenez, Ozeano Bare hispaniarraren artikulazio global berri eta post-hispaniar bat jarri behar da martxan, bere izaera autobaztertzailea espainiar, filipinar edo euskalduna bezalako errealitate nazionalisten aurka erabiltzeko, nazionalismo hispaniar/hispanistaren aurka doan historia trans-post-koloniala idazteko.

Gako-hitzak || Galdós | Etxeita | Rizal | Manila | Ozeano Bare-Atlantiko hispaniarraren berrartikulazioak | Ukapen koloniala.

Abstract || This article traces the articulation of “colonial disavowal” in the works of Pérez Galdós (*Fortunata y Jacinta*), José Manuel Etxeita (*Josetxo*) and José Rizal (*Noli me tangere*) in order to map out a Hispanic Atlantic-Pacific defined by the self-effacing quality of the Pacific space. The article centers on the Hispanic Pacific and its disavowal, as it is articulated through references to Manila in all three novels, in order to show how it is the central sight from which colonial disavowal can be studied in all three literary traditions while decentering and fragmenting any Spanish or Hispanist appropriation of Spanish imperialist history. The article concludes that a new global and post-Hispanist articulation of the Hispanic Pacific must be deployed in order to use its self-effacing character against nationalist realities such as the Spanish, the Filipino, or the Basque, so that a different trans-post-colonial history is written against the nationalist Hispanic/Hispanist grain.

Keywords || Galdós | Etxeita | Rizal | Manila | Rearticulations of the Hispanic Pacific-Atlantic | Colonial Disavowal.

The bullion [of silver coming from the Americas] flowed out of Spain to England, France, and the Low Countries for purchase of manufactured goods unavailable in Castile. From English, French, Flemish or Dutch ports Spanish pesos were transshipped through the Baltic or Murmansk into Scandinavia or Russia and traded for furs. In Russia... [silver] went southeastward along the Volga into the Caspian Sea to Persia, where it was sent overland or by sea to Asia. Spanish American bullion also flowed out of Spain through the Mediterranean and eastward by land and water routes to the Levant. India procured its American silver by means of traffic from Suez through the Red Sea and into the Indian Ocean, overland from the eastern end of the Mediterranean through Turkey and Persia to the Black Sea, and finally into the Indian Ocean, or directly from Europe on ships rounding the Cape of Good Hope following the route discovered by Vasco da Gama. The latter way was also used by Portuguese, Dutch, and English ships to carry Spanish American treasure directly to Asian ports to exchange for Asian goods. *Lastly and long ignored* American silver found its way to the Orient by way of the Pacific route from Acapulco to Manila.

Frank, *Reorient*, 141 (my emphasis).

OHARRAK

1 | Eskerrak eman nahi nizkioke Edorta Jiménez-ek aipatzeagatik euskal-filipinar loturari buruzko elkarrizketa bat, niretzako agerkunde bat izan zen. Eskerrak eman nahi nizkieke, halaber, graduondoko ikasle guztiei, 2000. urtetik Galdós-en eleberri kanonikoa den *Fortunata y Jacintaren* nire irakurketa post-kolonial/inperialista garatugabea jasan dutelako. Haien galdera eta ikuspuntuekin findu dute eta, funtsean, ikerketak eduki dezakeen edozein merezimenduren erantzule dira.

0. Sarrera

Iberiar ikasketak diziplina birformulatzeko gaurkotasuna berreskuratzen ari diren une honetan (Resina 2009, 2013), uste dut badaudela eremu hau geopolitikoki birpentsatzeko modu eraginkorragoak mitifikaziora iritsi gabe. Hori izan liteke iberiar ikasketen emaitza, espainiar estatuaren nagusitasun zabalagoa eta kulturantzagoa den egoera baten atzean mozorrotzen jarraitzen badute¹. Penintsula kulturantz baten fantasia politikoak, estatu post-inperialista espainiarri aurre egin ordez, Lege/Beste gisako (Lacan, 1966) estatusa legezkotzat joko du. Honek eremu iberiar sinbolikoa erregulatzen du, Besteak «espainiar estatu» konfederatu txiki andana sorraraziko lituzkeen bitartean (Galizia, Euskal Herria...), hauen esanahi eta kokapena estatu post-inperialista espainiarretik eratorrita. Hortaz, «Espainia Handi» bat eratuko zen azkenean, hau da, Penintsula kulturantz baten guztiz kontrako zerbaite.

Ikasketa diziplina birkokatze modu hobe bat bada, estatu post-inperialista espainiarra ikasketa penintsular eta iberiarrak erregulatzen dituen Bestea izatera itzuli gabe. Modu hori formakuntza geopolitikoak aztertzean datza, «ordena espainiar sinbolikoa» deitu litekeen hori desafiatuko duena. Ordena espainiar sinbolikoa geopolitikoki definitu den eta estatu post-inperialista espainiarreko subjektu bilakatzeko aitortu gabeko edo isilpeko desio inperialista eta laidogarriak menderatu edo subjektu bilakatu duten edozein formakuntza kulturek osa lezake —dela euskalduna, ekuatoreginearra edo erbesteratua—: *estatuaren* subjektu bilakatzen da. Menderatze/subjekturatze honetan laidogarria dena zera da, formakuntza geopolitiko hau estatuaren txandakako objektua ere bilakatzen dela, eta, ondorioz, subjektu zatitua bilakatzen da,

subjektu baztertua, bere burua beste objektu gisa soilik identifika dezakeena. Ordena espainiar sinbolikoa eta bere Bestea (estatu post-inperialista) historikoki zalantzan jartzen ez dituen kultura, historia eta instituzionalizazio euskaldun, ginear edo galiziarreko edozein proposamen estatu espainiarraren menpe egongo da eta azkenik espainiar gisa definituko da.

Aski entzutetsua den «Espainia»-ri «estatu post-inperialista espainiarra» deitzen jarraitzen badiot bere historikotasuna berrezartzeko da hain zuzen, baita oinarrian duen indarkeria traumatiko historikoa ere: ez dator gerra Napoleoniko ezta «Independentzia Gerra» (1808-1814) deiturikotik ere, baizik eta hemeretzigarren mendearen hasieran (1810-1825) eta amaieran (1898) Latinoamerikan borrokatu ziren jatorrizko «Independentzia Gerrek» eragindako galera kolonialetatik. Trauma historiko hau are korapilatsuago bilakatuko du Espainia post-inperialista espermentatuko duen aldi-bereko ekialdeko prozesuak («Afrika Piriniotan hasten da»), hau orekazen saiatuko dena Afrikan gauzatuko dituen hainbat ekintza inperialisten bidez (1860, eta abar). Alda Blancok dioen moduan: «Así nuestra tarea es la de (re) inscribir en la narrativa histórica acerca del siglo XIX lo que en su día era evidente: que el Estado español estaba configurado a modo de imperio (Ministerio de Ultramar, Consejo de Filipinas, etc.) y que, por lo tanto, España era una nación imperial» (2012: 25).

Oraintsu, Espainia Latinoamerikako inbestitzaile garrantzitsuena bilakatu zen 90eko hamarkadan (Casilda Béjar) eta Latinoamerika Espainiarako migrazio garrantzitsuenaren jatorri puntua bilakatu zen. 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren, eta nahiz eta behin betiko zifrarik ez dagoen, kapitalismo espainiarrak Latinoamerikan inbestitzen jarraitzen du, ekonomia espainiarra muturreko estuasunetan egon arren. Guinot Aguadok eta Vakulenkok esan bezala:

While the 2008 global economic crisis prompted a downturn in Ibero-American profits and the debt crisis negatively impacted the European market, Latin America retained its dynamic economic activities by remaining an attractive venue for foreign investments. During the second wave of foreign direct investments, Spanish companies consolidated their positions in the Latin American market by strengthening their former economic ties while simultaneously significantly increasing their investments in the region. Hence, Spain's direct investments in Latin America soared from €45 billion in 2007 to €116 billion in 2010. (2012)

Espainiak Latinoamerikan egin duen globalizazio eta hedapen hau serio hartzen badugu, galdera garrantzitsu ugari sortzen dira: Espainiaren inperialismo edo neoinperialismo eredu berri bat al da hau? Eta hala balitz, nola berrirakurriko genuke Espainiaren historia 1825etik, gutxienez, Espainiako inperioaren gainbeherak

nazio-estatu bidea hartuarazi zionean Espainiari, eta beraz, iragan inperialista atzean utzi? Beste hitz batzuekin esanda, Blancok egindako mende aldaketako Espainia inperialistaren azterketari jarraituz, aztertu egin behar al dugu Espainia nazio-estatu —edo huts egindako nazio-estatu— delako ideia, eta azken berrehun urteak termino inperialistetan birpentsatu? Labur esanda, inperioa ez zen inoiz joan? Hau mamu inperialaren itzulera gaitzesgarria al da?

Paul Gilroyk Afrika eta Latinoamerikarekiko Atlantiko beltzaren bere lanean (1993) erakutsitako axolagabekeriak edozein ikuspuntu Atlantikoaren zailtasunak erakusten baditu dagoeneko, uste dut oraindik ere merezi duela Espainia Atlantikoaren (eta Ozeano Barearen) planteamendutik berraztertzea, Atlantiko-Ozeano Bare hispaniar ikuspegitik, espainiar nazionaletik egin beharrean. Kultura espainiarraren Ozeano Bare-Atlantiko planteamendu batek ikuspuntu kritiko berri bat eratu lezake, lehenago adierazi dudan «mamu inperialaren itzulera gaitzesgarria» aztertzeraren eraman gaitzakeena. Horrelako planteamenduak garrantzia handiagoa dauka hemeretzigarren mendeko Espainiaren kasuan, itxuraz mende honetan Espainiak ozeanoz haraindiko dimentsioa galdu eta nazional bihurtzen baita. Laburbilduz, hemeretzigarren mendeko Espainiak, inoiz baino gehiago, hogeita batgarren mendeko Espainia birdefinitzeko gudu-zelaia irudikatzen du. Nire azpijoko kritiko-historikoa teleologikoa edo metanarratiboa dela salatuz egin daitezkeen kritikak aurreikusiz, zeinak tabu hitzak baitiren kritika kultural garaikidean, aski dut esatea metanarratiba teleologiko baten menpe bizi garela, Espainia 1808-14 bitartean hasten den etengabeko historiaren nazio subjektu gisa hartzen duena, eta, gutxienez 2010era arte, birsortze neoinperialista «osasuntsua» eduki duena globalizazioan.

Hortaz, ondorengoa diziplina ez-binomial bat teorizatzekeo saiakera bat da, ez dena eremu penintsular/iberiar batera itzuliko, eta, aitzitik, beste diziplina, subjektu eta desioak irekitzen dituena, ezin direnak estatu post-inperialista espainiarraren orden sinbolikora gehitu. Horrezaz gain, ozeanoz haraindiko dimentsio bat eskain dezakete, edozein ordena espainiar sinboliko desafiatuko duen Ozeano Bare-Atlantiko hispaniarraren definizio berri bat dakarrena.

Hori egiteke, espainiar, filipinar eta euskal eleberri modernoan «sortzaile» kanonikoetara joko dut, hurrenez hurren, filipinarra, euskalduna edo espainiarra ez den eremu bat irekitzeko, eta, beraz, estatu post-inperialista espainiarrak sortzen duen edozein bestetasun efektu desafiatzen duena. José Rizalek (1861-1896) eta Benito Pérez Galdósek (1843-1920) ez dute aurkezpenik behar. Hala ere, Jose Manuel Etxeita (1842-1915) aurkeztea beharrezkoa izan liteke. Has nadin susmatuz erregistro historikorik egon ez arren,

Etxeitak eta Rizalek Manilako kaleetan topo egin zutela ziurrenik. Etxeita Manilako azken alkatea izan zen zen. 1898 ondoren bere jaioterri zen Mundakara itzuli zen eta euskarazko eleberriak idazteari ekin zion. Eleberrizat har daitezkeen beste lau testu egon arren euskaraz idatziak hemeretzigarren mendean, Etxeitak bere lehenengotako eleberri modernoa (ez bada lehenengoa) 1909an idazten du, *Jose txo* izenekoa. Ohitura-eleberri batek jarraituko du, *Jaioterri maitia* (1910), hogeigarren mendeko lehen erdiko euskal narratibari forma emango diona.

Azkenean hogeigarren mendeko ohitura-narratiba bihurtuko denak, Txomin Agirrereren *Garoa* kanonikotik (1907-1912) Orixeren *Euskaldunak* (1950) eleberrira, eta beranduago Bernardo Atxaga eta Kirmen Uribe bezalako idazle kanonikoen narratibak berrandatu eta haiei forma emango dienak, jatorrian ohiturazkoak ez ziren Etxeitaren euskal eleberrietan du jatorria, egiaz ohiturazkoak bihurtuko direnak haien ozeanoz haraindiko adierazpen lekua ezabatu eta berridazteko saiakera batean. Etxeitaren eleberriak ozeanoz haraindiko bere ahanzteen narrazioak dira hain zuzen, eta zehazki Ozeano Bare hispaniarraren ezabatzea.

Jarraian erakutsiko dut nola ozeanoz haraindiko geografia eta politikaren ezabatze hau «ukapen kolonial» gisa definitu daitekeen, eta eleberri kanonikoak antolatzen dituen egitura nagusia den, ez soilik Etxeitarenak, baizik eta hiru idazleenak. Ukapen kolonialak logika freudiano honi erantzuten dio (1949), «bai, baina hala ere» zeinarengatik errealitatea onartuta dagoen baina aldi berean fantasia gisa ukatua (*Verleugnung*). Testuinguru honetan, ukapen kolonialak galera konolonialarekin eta galera hori ukatzeko formulatutako fantasiekin du zerikusia («bai, kolonia galdu nuen, baina hala ere, ez dut galdu kolonia»).

Galdósi eskainitako atal luzeenak ez du haren «garrantzia handiagoa» dela erakutsi nahi, baizik eta hispanista gehienek zenbait esparrutan, ikasketa euskaldun edo filipinarretan kasu, duten ezaguera mugatua: ukapen kolonialaren emaitza edo efektua dena funtsean, eta, ondorioz, zuzenketa eta berridazketa sakonagoak eskatzen dituen etorkizuneko azterketetan.

1. Galdós

Jarraian, hemeretzigarren mendeko literatura espainiarreko testu kanonikoenari helduko diot, eta, gainera, nolabaiteko testu-irakurketa tradizionala egingo dut. Benito Pérez Galdósen *Fortunata y Jacinta* obraz (1886-87) ari naiz. Ez dut uste modu hoberik dagoenik mende honetako kultura berraztertzearen asaldura eta garrantzia azaltzeko.

Galdós kokatzeko garrantzitsua da gogoratzea une hartan Espainian kontrolik gabeko analfabetismoa zegoela (%61 gizonetan, %81 emakumeetan), Labanyik gogorarazten digun moduan: «from the publication of his first novel in 1870 to his death in 1920, Galdós sold some 1,700.000 volumes... averaging 35,000 volumes a year over his fifty year career» (Labanyi, 8). Azken batean, ez da gehiegikeria esatea Galdósek Espainiako eleberria instituzio nazional gisa sendotu zuela: gaztelaniaz idatzitako eta irakurritako ekoizpen bat izanik: eleberri frantses edo britainiarretatik egindako gaztelaniazko itzulpenak lehenago maila horietara iritsi zirenez gero. Ikuspuntu teorikoago batetik, ziurtatu nahiko nuke Galdósen literatura merkatu espainiarra nazional gisa sendotzen duen lehenengo produktua dela, eta produktu honengatik, besteengatik ez bezala, espainiar irakurleak ekoizle eta kontsumitzaile merkatu nazional gisa imajinatzen ahalbidetzen ditu. Galdósen literaturak fenomeno honen berri duela erakusten du, alegoria bidez modu auto-gogoetazkoan arazo bihurtzen duen bitartean.

Fortunata y Jacintak (1886-87), gaur egun, erronka kritiko bat izaten jarraitzen du. Eleberrian sartzean eta sarrerako goi-erdiko klaseetatik amaierako behe klaseetara jaistean, kritikariek, eta modu berean irakurleek, eleberriko pertsonaiek *Fortunata*, emakumezko pertsonaia nagusia, ezagutzean duten esperientzi bera bizi dute, «irenste» deitu nahiko nukeen esperientzia bat, Anne McClintockek bere *Imperial Leather* (1995) obran garatu zuen esanahi zehatzean, topaketa kolonialak eztabaidatzeko. Eleberriaren laugarren eta azken zatian, irakurleak Madrilgo bigarren mailako munduak erdizka ikusten hasten direnean eta *Fortunata*ren gordelekura iristen direnean, hiltzen ari den tokira, eleberriaren amaiera boteretsu baina enigmatikoak irentsi egiten ditu, harrapatu. *Fortunata*ren apartamentuaren bigarren mailako eremua laztura, nahaste eta doilorkeria esperientzia bat bilakatzen da, baita autorearentzat ere, bere fidagarritasun narratiboa desafiitzen duen krisi figuratibo bat jasaten ari delako. Autoreari jarraiki, kritikari eta irakurleek nahaste drama eta trauma hau errepikatu besterik ez dute egin, topaketaren izaera kolonialaz jabetu gabe; hortaz, eleberriari ez kolonialista ezta inperialista ere ez den esanahi bat ematen dion *ukapen koloniala*² agertzen da.

1.1 Kritika eta irenste nazionala

Gaur arte feminismoa eta marxismoa izan dira naturalismo espainiarraren azterketan planteamendu kritiko emankorrenak egin dituztenak, eta nire analisiak horiei jarraitzen die. Hala ere, planteamendu hauek inperialismo/kolonialismoari jarritako arreta urriak nagusitasun nazionalista sendotzearen arrazoirik gabeko efektua izan du, zeinari *Fortunata y Jacintak*, eta baita naturalismoak orokorrean, erantzuten dion jatorrian. Inperialismo/kolonialismoaren

OHARRAK

2 | Arreta jartzen badiogu hemeretzigarren mendearen amaierako espainiar eta europar esperientzia inperialistari, *Fortunata* Conraden dina den nolokotasuna hartzen du. Ikusiko dugun bezala, espainiar esperientzia inperialistaren erdigunea da, baina, haatik, subjektu kolonialaren itxura etxetiarra soilik izaten jarraitzen du: azken finean «basati» nazionala da, eta ez koloniala. Gainera, espainiar esperientzia inperialistaren azken sekretuaren jabea da: Kurtzen «he horror, the horror, «soy un ángel, soy un ángel» (2004: 643) enigmatikoa bilakatzen da. Labanyik (2000) eta Sinnegane (1992) erreferentziak egin badituzte ere lotura kolonial batetik igaro ondoren, ikusteke dago irakurketa kolonial batek edukiko lituzkeen eragin emankorrak. Amaieran, Catherine Jagoek zera ohartarazten digu «Women characters in Galdós's novels are widely read as allegories of 19th-century Spain, 'her' self, oppressed by the ancient regime and the Church and, in later works such as... *Fortunata y Jacinta*, turning from the traditionally sanctioned embrace of marital-monarchical authority to pursue new freedoms with a lover-republic» (56). Jarraian datorrena lehenengo saiakera bat da. Moda kritikoa jarraitu gabe, *Fortunata y Jacinta*ren bertsio merkeena darabilt (Edimat) aipuengatik, gogoan ditudalako iraganeko eta etorkizuneko graduondokoko ikasleak irakurle potentzial gisa.

ukapen nazionalista hau ukatzearen ondorioz —ukapen koloniala hemendik aurrera— orain arte feminismoak eta marxismoak mitifikatu egin dute Fortunataren pertsonaia, egiazko Espainia historikoa definitu behar duen errealitate feministaren edo langile klasearen alde edo kontra dagoen subjektu nazional gisa. Uste dut ukapen kolonial hau kritikari askok amaitu duten irenste kritikoaren jatorria dela.

Catherine Jagoe bezalako kritikariak Fortunata salbatzen saiatu dira, eta orokorrigo eleberriaren egitura narratiboa, subjektu eta diskurtso «proto-feminista» gisa hartuz, hurrenez hurren. Honakoa ondorioztatzen du: «Beneath the overtly middle-class and patriarchal value system of the narrative lies a proto-feminist statement. *Fortunata y Jacinta* subversively critiques the exploitative power of middle-class men such as Juanito and lends its ambivalent support to a heroine who appropriates and radically redefines the ideal of the *ángel del hogar*» (1994: 119). Fortunataren proto-feminismoa eztabaidagarria da, bere helburua etxekotasun burgesaren ideala onartzea baita («ángel del hogar») eta onargarria egin bere mendekotasunean. Haatik, mendekotasun estatus honek ezinezkoa egiten du beretzat etxekotasunaren erdiko klasearen ideala gauzatzea. Azken finean, Fortunataren pertsonaia ez dago oso arduratuta proto-feminismoaren gaiarekin, testuinguru espainiar nazional batean kokatua, baizik eta emakumearen mendekotasunean, ikuspegi nazionalista gainditzen duena. Labur esanda, Fortunataren mendekotasunak desberdintasun politiko bat ezartzen du eta ezin da diskurtso feminista nazional batera murriztu³. Mamu feministaren beste muturrean, Lou Channon-Deutsch bezalako kritikariek zera ondorioztatzen dute: «women like... Fortunata end tragically while their partners in adultery emerge unscathed, not only reaffirms the double standard of conduct in sexual relations, it reveals what Tanner in *Adultery in the Novel* sees as the undisguised anxiety for establishing and maintaining order so prevalent in the bourgeois novel» (1990: 159). Orokorrigo esanda, Channon-Deutschek honakoa ondorioztatzen du: «these women also embody the 19th-century confrontation that pits the unbounded, uncontrollable, forbidden self in a losing battle with the socially defined and confined self» (1990: 162). Haatik, formulazio honetan ere, diskurtso naturalistaren mugez jakitun izanda, «neurrigabeko eta eutsiezina den ni debekatua» burgesak ez du kanpoalde burges bat, hau da, ez du mendekotasunezko kanpoalde bat onartzen, Fortunatak duena bezalakoa; kanpoaldeak erdi-mailako barneko bakarkako banakotasuna izaten jarraitzen du.

Modu berdintsuan, John Sinnigenek Fortunata langile klasearen ordezkariatzat du, eta horrela testuan inoiz agertzen ez den langile klasearen iraultza baten gauzatze narratiboa bilakatzen da. Fortunata «the “working-class woman”» gisa aurkeztu ondoren, «stands in contraposition to the vast array of bourgeois and petty bourgeois

OHARRAK

3 | Halako mendeko desberdintasunak ez dauka berezko diskurtsorik (2004: 599). Uneoro Fortunata diskurtso katoliko eta burgesez jabetzen da (honradez, 2004: 552; virtud, 2004: 550, etc.) arrakastarik gabe bere jarrera historiko berriari esanahia kentzeko.

characters who try to control her» dena (1992: 117), Sinnigenek langile klaseko heroi den Fortunata «the most powerful agent of the novel,» gisa aldarrikatzen du, hau da, aldaketa historikoaren agente bat, arrazoi honengatik: «she achieves self-fulfillment through a negation of bourgeois conventions» (1992: 133). Amaieran, hala ere, Sinnigenek honakoa ondorioztatzen du: «the resolution offered by Fortunata's 'idea' of the differences between the working class and the bourgeoisie can only be a potential solution to the problems of society» (1992: 136); azken finean, ez dago klase borroka edo iraultzarik eleberrian. Haatik, Fortunatak ezin du langile klasearen ordezkari izan edo hura defendatu. Langile klaseari egindako erreferentzia zuzen bakarrak testuaren hasieran agertzen dira, bikote burges ezkonberriak, Juanito eta Jacintak, Bartzelonara bidaiatzen duenean eztei-bidaian⁴. Baina Madrilera itzultzen direnean langile klasea desagertu egiten da eta Galdósen ohituazko etorriak mendeko talde eta norbanako mota guztiak atzematean jartzen du arreta, Fortunata barne. Espektroaren beste muturrean Carlos Blanco Aguinagak eleberria kritikatzeko bere ideologia burgesagatik⁵. Blanco Aguinagak honakoa ondorioztatzen du: «A diversos niveles, pues, lo que *Fortunata y Jacinta* nos hace vivir intensamente es la unidad dialéctica indestructible del ser humano en cuanto particular (o privado) y su tipicidad sociohistórica (que es, en última instancia, su determinación de clase)... la dialéctica persona-historia-clase corresponde rigurosamente a la dialéctica ficción-no ficción» (1978: 92). Haatik, Blanco Aguinagak ez du Fortunataren estatusa langile klasearena dela zehazten eta, beraz, Fortunatak ihes egiten du «su determinación de clase»-tik eta funtsean dialektika historikoaren edozein ulermen marxista tradizionaletik. Fortunata mendekotasunaren eremu ez-politikoaren beste nonbait dago⁶.

Jo Labanyik soilik, marxismoa eta feminismoa biltzen dituen ikasketa kulturalen planteamendutik, estatuaren funtzio nazionalista esplizitu egiten du bere analisisan, eta, beraz, nabarmentzen du badaudela eremu eta posizioa subjektiboak estatuak bere ideologia nazionalistatik kontrolatu ezin dituenak, baina Galdósek bere eleberrietan irudikatu dituenak. Honela adierazten du: «[H]ere Galdós is not just criticizing marriage as an institution, but signaling the gap between sign and signified that occurs when the centralized nation-State attempts to subject all forms of private as well as public life to legal codification» (2000: 207). Labanyik ondorioztatzen duenean errealismo horrek arazoak sortzen dituela errealitatearen eta adierazpenaren artean haiek nahastuz, eta beraz irakurlearen arreta horrek duen fidagarritasun eza jarriz, eremu kritiko bat irekitzen du generoaz eta mendekotasunez pentsatzeko, berak ideia garatzen ez duen arren⁷. Uste dut, honi dagokionean, ukapen kolonialean zentratutako planteamendu Ozeano Bare-Atlantiko hispaniar batek gogoeta egiteko balio digula Fortunatak gauzatutako ez-burges/klase gabeko kanpoalde honi buruz.

OHARRAK

4 | Hutsik dagoen Zaragozaren ondoren Bartzelonara joaten dira, eta bertan Bartzelonako langile klasearen lekuko dira txundituta—emakumezko langileak fabrikari, zehazki. Jacinta, izan ere, emakume horiekin identifikatzen da.

5 | Ondorio hau ateratzen du Fortunataz: «no solo ha internalizado los aspectos esenciales de la ideología dominante, sino que ha sido la productora de un nuevo Delfín... para el mantenimiento del orden clasista» (1978: 84).

6 | Zentzu horretan, Fortunata ez da prostituta bat, hainbat kritikarik iradoki bezala, ez dagoelako tratatu edo ekonomia kapitalistarak bizilagun dituen hainbat gizonekin duen harremanaren erdigunean. Berea bizirauteko modu pre-kapitalista bat da—mendeko bizimodua.

7 | «Realism problematizes the relationship between representation and reality, not—as in modernism—by insisting on the difference between the two, but by blurring the boundary between them while at the same time making it clear that representation is unreliable. This, I would argue, is more disturbing» (2000: 208).

1.2 Fortunata eta Egiazkoa

Fortunata y Jacintaren dimentsio inperialista/kolonialen irakurketa lacaniar bat lagungarria izan daiteke eraginkortasunez irakurtzeko protagonistaren, Fortunataren, eleberriaren eta funtsean Espainiako naturalismoaren artikulazio zehazki nazionalista eta nagusiak⁸. Analisia eraginkorragoa da Fortunataren egoera ez bada murrizten zenbait eremu positibo eta nazionalistetara, kontzientzia proto-feminista edo langile klasearenaren presentzia edo gabeziak definitzen duena. Horren ordean, bere mendeko natura femenino, kupidagabe eta negatiboaren posizioa mantentzen da. Norbaitek onartu dezake Fortunatak bestea irudikatzen duela: kasu honetan, Espainiako eta ipar Europako inperialismo eta nazionalismoaren bestea. Aldi berean, bestetasuna adierazi nahi duten mendeko posizio gehientsuenen kasuan bezala, Fortunatak Egiazkoa esan nahi duten gune menderaezin eta traumatiko bat dauka: ordena sinboliko espainiar/europar baten Egiazkoa. Eleberrian Fortunata behin eta berriro itzultzen da egiazkoa eta menderaezina den mendeko posizio baten seinale gisa. Posizio hori traumatikoa da Espainiako ordena naturalistarentzat eta Espainiako Errestaurazioaren ordena sinboliko nazionalistarentzat: beraz bere ezezkotasun adierazezina.

Hasierako hipotesi hau onartzen badugu, eraginkorragoa da Galdósek Fortunataren inguruan multzokatzen dituen ikur eta izen guztien arrastoa jarraitzea, bere esanahia zehaztu beharrean, bere egoera traumatikoa, ezkorra eta menderaezina egiten duen ordena sinboliko, historiko eta politikoa zehazteko. Analisi hau egin denean, argi geratzen da eleberria, eta naturalismoa orokorrean, gainbeheran dagoen diskurtso inperialista gisa azaleratzen dela, eta bere burua errepikatu behar duela modu nazionalista batean aurrera eramateko bere mendekotasun traumaren ezabatzea: Fortunata bera. John Kronikek erakusten duen moduan (1985), sei pertsonaiek ezagutzen dute Fortunata eta Errestaurazioaren ordena sozialean egokitzeko bera itxuratzen eta moldatzen saiatzen dira: Maximiliano, Nicolás, Doña Lupe, Mauricia, Guillermina eta Ballester. Haatik, Fortunatari nortasun sozial baikorra etengabe aitortzen saiatzeak huts egiten du behin eta berriz, hortik saiakera errepikatzearen beharra. Hala ere, sei errepikapen hauek Fortunatari buruzko oso diskurtso zehatza lortzen dute, baina baita emaitzagabea ere, eta diskurtso hau bera da bere porrotean, bere ezezkotasunean, ikasi daitekeen eta behar den bakarra.

Lehenik, Fortunata Naturaren pertsonifikazio gisa aurkezten da, naturako gorputz menderatzaile bat, goi klaseko bere emakumezko baliokideek ez bezala bere burua erreproduzitzen jarraitzen duena botere eta indar eztabidaezinekin. Fortunata erreprodukzio geldiezin bat da, harrenganako maitasunetik. Galdósek bitartekotasunik eta baldintzarik gabe aurkezten du Fortunatak bere maitale burgesagatik,

OHARRAK

8 | Gainera, Fortunatarekin amaieran topatzen diren gizonezko pertsonaia gehienek bizi izan dituzten kolpe historiko eta emozionalek—Maxi bere senarra; Ido de la Iglesia, Ballester botikaria—Fortunataren buxadura subjektibo eta epistemologikoaren boterearen fedea ematen dute. Juanito Santa Cruzek ere, Fortunataren maitale burgesak, ezin du bere eragin suntsitzailetik ihes egin: bere emazte Jacintak erbesterratu egiten du etxe burgesaren bihotzetik—Fortunataren mendeko mundu ilunera egindako irtenaldi bakoitzaren ondoren itzultzen den ordena (2004: 647)—azken emakume honek aurrekoaren haur bat jaso ondoren.

Juanito Santa Cruzgatik, duen maitasuna. Fortunatak berak adierazten duen moduan, maitasun hau zorte eta fede kontua da; berak ez dauka horren gaineko kontrolrik. Emakume gisa ezaugarritzea kezka orokor baten erantzuna da, Espainian nagusi zena mendeko klaseekiko, uste baitzen amaigabeko erreprodukzioa mehatxatzen zutela ekintza eta erresistentzia politikoaren azkeneko modu boteretsuena bezala. Hala ere, «Fortunata natura gisa» egitura metaforiko deskriptiboak huts egiten du bera kontrolatzerako orduan, eta modu berean bere erreakzioak bestialismoaren diskurtso metaforiko korapilatsuan zehar ezaugarrituta daude: «txori»-tik «tigre»-ra (464), Fortunata mugimenduan dagoen natura kontrolaezin gisa deskribatzen da.

Laburbilduz, Galdósek «natura»-ren esperientzia koloniala —oihana eta bere animaliak— Espainiako inperialismoko ilunpearen bihotzean kontatzen du: mendeko Madril⁹. Gainera, Natura herri gisa aipatzen da beti. «Herri natural» hau bloke gisa aurkezten da beti, bloke mardula, forma gabeko gauza purua,aldi berean goi klaseek moldatzea behar duena (2004: 314, 464). Bloke-herriak forma ematea behar du bere burua erreproduzitzearen joera gaitzesgarria neutralizatzeko, gizartearen oinarriak arriskuan jarriz. Horri dagokionez, Fortunata ez da Natura soilik —paisaia koloniala bere animaliekin— baizik eta subjektu koloniala: basatia. Galdósek eta hainbat pertsonaiek Fortunata eta bere umea basatizat dituzte (2004: 50, 126, 151, 153, 200, 243, 252, 294, 376, 471). Guillerminak Fortunatari esaten dioen moduan: «Usted no tiene sentido moral; usted no puede tener nunca principios, porque es anterior a la civilización; usted es un salvaje y pertenece de lleno a los pueblos primitivos» (464). Modu honetan, herri espainiarra, Fortunata erdian duela, basakeria kolonial naturalen artean nagusia da, espainiar estatua eta bere ordena gainditzen dituen botere gaitzesgarri eta kupidagabearekin batera moldeatzeko eta zibilizatzeko beharra daukana burgesen kultura nazional berriaren arabera, herri horren aurreko izaera traumatikoa gaindituko bada. Fortunata bera ere diskurtso kolonial honetaz jabetzen da eta hau ondorioztatzen du: «pueblo nació y pueblo soy; quiero decir, ordinariota y salvaje» (2004: 376). Labanyik azaltzen duen moduan: «*Fortunata y Jacinta*, in constructing Fortunata as a 'savage' and superior breeder, takes the form of a miscegenation narrative: that is, a colonially conceived blueprint for the nation based on the 'improvement of the race' through the white man's fertilization of the 'native' female» (2000: 192).

Diskurtso metaforiko kolonialista hau hedapen geopolitiko sakonago batean zabalduz, «herria» Madrilgo, Espainiako hiriburuko, mendeko klaseetara murrizten da, eta, aski ironikoa da Espainiako nazioaren eta bere identitatearen biltegi *naturala* ere bilakatzen dela. Galdósek dioen moduan, «[E]l pueblo posee las verdades grandes y en bloque» (2004: 464). Puntu honetan, hain zuzen, Katalunia, Asturias eta Euskal Herriko langile klaseak, eta baita penintsulako

OHARRAK

9 | Hurrei «gizajale» deitzen zaie (2004: 110).

landa klaseak ere, desagertu egiten dira eleberritik edo mendeko Madrilgo iluntasunaren bihotzean biltzen dira: Espainiako herria Madrilgo mendeko klasea besterik ez da. Bilketa honek Madrilgo mendeko klaseak nazionalizatzen laguntzen du, batik bat Espainiako historia, kultura eta politika nazionalaren biltegi gisa. Identitate eta nagusitasun nazionalaren berrantolatze garrantzitsu eta berria da, une hortara arte ipar Europako diskurtso erromantikoak soilik kokatu zuelako Espainiako identitatea kolonialismoaren diziplinan, orientalismoaren erretoriken bitartez (Andaluzia eta «ijito»/buhame kultura).

Beraz, Fortunata eta «herria» kolonialismoaren erretorika inperialistatik ulertzen dira lehendabizi, baina aldi berean egitasunaren erretorika nazionalistaren arabera birdefinitzen dira, huts egindako errepresentazio sozialen praktika nahasi eta errepikakor batean. Haatik, bi diskurtsoak, koloniala eta nazionala, aldi berean erabiltzen badira, diskurtso kolonialistaren eredu bikoitza azaleratzen da, kolonialismoa onartu eta baztertu egiten duena aldi berean. Alde batetik, naturalismoaren diskurtso burgesak Espainiako nazioaren esentzia jatorra begiesten du ikuspuntu kolonialista batetik, mendeko klaseak Espainiako naziotik kanpo eta Europako inperialismoaren eremuaren barruan kokatzen dituena. Bestetik, diskurtso burges naturalistak Espainiako nazioaren mendeko esentzia jatorrarekin bat egiten duenean, ordena burges-nazionalistatik kanpo dauden talde bakarrekin ere egiten du bat, seinaleak bilakatzen direlako, adierazgarriak, aspaldiko garai ez-nazionalista bateko soberakinak, Espainia ez zenean nazio-estatu bat baizik eta Ozeano Bare-Atlantikoko inperio bat. Laburbilduz, Fortunata eta «herria» Errestaurazioaren bihotzean dagoen kontraesanaren oroigarri traumatikoa bilakatzen dira. Errestaurazioko espainiar burgesia Espainiak latinoamerikan eta ekialdeko Asian zuen historia inperialista zaharragotik azaleratzen da, dagoeneko gainbeheran zegoena, eta aldi berean, bere burua birformulatzen saiatzen da Britainia edo Frantzia bezalako inperio nazional gisa, Afrika eta hegoaldeko Asiara zabalduz; aldi berean, Espainia ekialdekotu eta subjektu kolonial/kolonizatu posizioan kokatzen du. Naturalismoa emakumearen mendeko izaeraz baliatzen da bi posizio edo identitate kontrajarri hauen seinale gisa (kolonizatzailea/kolonizatua), eta aldi berean kontraesan inperialista/kolonialista menderaezina espainiarra eta nazionala den identitate berri baten esentzia gisa aurkezten du. Fortunata nazio espainiar berriaren alegoria da, baina baita Ozeano Bare-Atlantiko eta koloniala den krisi espainiarraren gune ez-alegoriko eta traumatikoa gisa ere.

1.3 Alegoria inperialistak: zetazko xala lebitaren aurka

Arestian aipatutako kolonialismoa irudikatzeko ukapenak Ozeano Bare-Atlantiko dimentsio osoa hartzen du espainiar inperialismoaren

logika zaharragoaren adierazgarriak ere, eleberrian azaltzen direnak, ikertzen badira. Eleberriaren lehenengo zatiaren sarrerako kapituluetan bi familien genealogia kontatzen da: Santa Cruz eta Arnaiz familiak. Hala ere, goi-erdi mailako klaseko bi familien istorio soilaren atzean, Galdósek gainbehera eta birsortze inperialistaren istorioa sofistikatua kontatzen du. Bi familiak kontrajartzen ditu, Arnaiz eta Santa Cruz, Espainia inperialistaren gainbehera eta ipar Europako inperialismoaren goraldia azaltzen duten bi genealogia bailiran. Istorio hau modatik kontatzen da. «Mantón de Manila»-ren, edo zetazko xalaren, Arnaiz familiak komertzializatutako «obra nacional de arte» baten, moda galtzen denean, irakurlea Espainiako merkataritza inperialistaren bide garrantzitsuenetako baten gainbeheraren lekuko da. Bere barne hartzen zuen Txinatik Espainiarako lurraldea, Filipinetatik eta Mexikotik igarota, baina Suezeko kanaletik bidaiatzen duen eta Asiatik datorren merkataritza britaniar berriak oztupo egiten dio.

Aldi berean, Parisetik Madrilera doan bide berriak Arnaiz familiaren goraldi eta arrakasta definitzen du, eta, hedaturaz, ipar Europako moda, kultura eta modernotasunaren nagusitasuna Espainian. Inperialismo kultural hau, modaren bidez alegorizatua, «el imperio de la levita» (2004:25) gisa definitzen da eleberrian, eta ez «el imperio de los colorines» (2004:24) gisa, zetazko xalari erreferentzia eginez¹⁰. Zetazko xal koloretuaren eta lebitaren soiltasun serioaren arteko aldea bi inperialismoen patuaren alegoria ere bilakatzen da, espainiarrarena eta ipar europarrarena. Espainiako behe klaseek zetazko xala mantentzen duten bitartean, erdi eta goi klaseek utzi egin dute, Pariseko moda soil berriarekin bat egiteko.

El género de China decaía visiblemente. Las galeras aceleradas iban trayendo a Madrid cada día con más presteza las novedades parisienses, y se apuntaba la invasión lenta y tiránica de los medios colores que pretenden ser signo de cultura. La sociedad española empezaba a presumir de seria; es decir, a vestirse lúgubrementemente, y el alegre imperio de los colorines se derrumbaba de un modo indudable. Como se habían ido las capas rojas, se fueron los pañuelos de Manila. La aristocracia los decía con desdén a la clase media, y esta, que también quería ser aristócrata, entregábalos al pueblo, último y fiel adepto de los matices vivos. Aquel encanto de los ojos, aquel prodigio de color, remedo de la naturaleza sonriente, encendida por el sol de Mediodía, empezó a perder terreno, aunque el pueblo, con instinto de colorista y poeta, defendía la prenda española como defendió el parque de Monteleón y los reductos de Zaragoza. Poco a poco iba cayendo el chal de los hombros de las mujeres hermosas, porque la sociedad se empeñaba en parecer grave, y para ser grave nada mejor que envolverse en tintas de tristeza. Estamos bajo la influencia del Norte de Europa, y ese ladito Norte nos impone los grises que toma de su ahumado cielo. (2004: 24)

Hasiera batean Galdósek modaren historia Espainian kontatzen duenean, Espainiako nostalgia kolonialaren diskurtso geopolitiko darabil eta bertan mendeko klaseak gainbehera doan Espainiako

OHARRAK

10 | Santa Cruz familiaren negozioa arropa nazionala zen, soldaduen arropa, modaren diktaduratik ihes egiten zuena. Haatik, ekonomia nazional hau etenda balego bezala aurkezten zaigu, Baldomero Arnaiz dagoeneko erretiratu delako. Juanito Santa Cruzek Aurora maitale berri gisa hartzen duenaren gertaera nagusia da, Pariseko «berritasunak» eta «barruko arropa» merkaturatzen aritzen baita, eta, aldi berean, emakume «langile» berri bat irudikatzen du, «fidagaitza».

kolonialismoaren azkeneko biltegi bakar gisa deskribatzen dira. Testuinguru honetan, Fortunata gainbehera doan Espainiako kolonialismoaren azken pertsonifikazio gisa azaleratzen da: desiragarria, baina Espainiako ordena burges nazionalistik kanpo, ordena hori ipar Europako kolonialismoarekin identifikatu baita, eta eleberrian bere pertsonifikazio garrantzitsuena Juanito Santa Cruz du. Beraz, Fortunata eta Juanitoen arteko maitasun-harremana nostalgia, desio eta kontrol harreman kolonialista besterik ez da, gainbehera doan Espainiako kolonialismoarena alde batetik, eta haziz doan ipar Europako (Frantziako eta Britainiako) kolonialismoaren artean bestetik; beraz, Labanyik nabarmendutako mestizajearen egoera koloniala gaindituz. Hala ere, kolonialismoaren gainjartzeak eleberrian eta baita Espainiako naturalismoan ere askoz ere korapilatsuak dira eta askoz haratago hedatzen dira hasiera batean, modaren erreferentzia alegorikoak iradokitzen dutena baino. Literatura salgai gisa hartzeraz ere zabaltzen da, hau da, eleberri naturalistara, beraz *Fortunata y Jacintak* bere egoera alegorizatzen du kolonialismoaren krisi eta zabaltzearen gainjartze Ozeano Bare-Atlantikoan.

1.4 Kontalari fidagaitzak, polifonia, kafe kultura eta esparru publiko berria

Eleberriaren hirugarren zatian, goi eta erdiko klaseak aurkeztu eta tratatu direnean dagoeneko aurreko bietan, kafe kulturaren sarrera luze eta ia *costumbrista* bat topatzen dugu, eta ondoren Evaristo Feijoo eta Fortunataren arteko «maitasun-harremana» dator. Hirugarren zati hau, erdi eta mendeko klaseen arteko posizioan trantsizionala eta zitala dena, funtsezkoa da ulertzeko kolonialismoaren ukapena nola egituratuta dagoen galdosiar diskurtsoan: zati honek *mise-en-abyme* egiturari erantzuten dio.

Lehenengo zatiaren hasieran, Galdósek Juanito Santa Cruzen hezkuntza aldartetsua kontatzen duenean, atseginez azaltzen du Juanitoren fase liburuzalea (2004: 8). Juanitok irrikaz irakurtzen du filosofia, erlijioa eta geografia. Erregimen Brahmanikoen eta ekialdeko despotikoen arteko botere desberdintasunen eztabaidetan ere murgiltzen da. Ekialdeko sukarrak gazte joera bat dirudi, hura garaitzean arrastorik utzi gabe desagertzen dena. Hala ere, eleberriaren hirugarren zatian, kafe kultura aurkezten denean, orientalismoa modu sotil baina aldi berean zentrolean berragertzen da. Kafetegiko eztabaida gehienak lau alorretara mugatzen dira: garrantzirik gabeko solasaldiak, erlijioa, politika eta ekonomia. Diskurtso honek, nagusiki publikoa eta gizonei mugatua dena, Juanito Santa Cruzengandik eleberriaren hasieran ikasitako ekialdeko diskurtsoa berreskuratzen du. Kafetegietan Espainiako egoera politiko eta ekonomikoa Europako gai nagusiekin batera eztabaidatzen da. Hala ere, eztabaida orokor hau diskurtso erlijioso

eta filosofikoekin lotuta dago beti. Dirkurtsu horietan ekialdeko logika konparatiboa da nagusi, beste sistema erlijioso, ekonomiko eta filosofikoei buruz badira ere (2004: 499, 625). Beste hitz batzuetan esanda, kafetegiko eztabaidak ipar Europako diskurtso inperialistez beteta daude: historikoki Espainia ekialdekotu eta emakumetu egiten dituen, *Carmenekin* gertatu bezala (Merimée, 1845).

Kafe kultura (gizonezko) instituzio demokratikoa ere bada, zentzu batean ezen kafe egiturak edozein gizonezko entzule baimentzen duen ikastera eta bere jakituria elkarbanatzera. Emaizta gisa, kafe kulturak, bere egitura demokratiko maskulinoan, edozein gizoni bere burua birkokatzen uzten dio diskurtso inperialistaren erdigunean, eta posizio inperialista nagusi horretatik, bere iritzi unibertsalaz jarduten Espainiaren, Europaren, Ekialdearen eta historia unibertsalaren inguruan. Beste hitzetan esanda, kafe kulturak klaseen desberdintasunak eta politikoak ezabatzen ditu —generoarenak izan ezik— eta gizonezko edozein subjekturi ahalbidetzen dio botere posizio unibertsal eta inperialista bat adierazten munduaren bere ezagutza erakusteko. Bistan denez, kafe egituraren botere/jakintza Foucault efektua ondorengoan datza: kafetegiaren kanpoan klase desberdintasun geopolitiko gehienak berrezarrita daude eta beraz kafeak ipar Europako inperialismoaren mundu ordena hedatzen eta goititzen du, non Espainia gainbeheran dagoen inperio bat den. Beraz, kafe kulturaren erdigunean Galdósek eleberriaren hasieran deskribatzen duen borroka eta desoreka koloniala, modaren erakuslean barrena (Manila/Paris), indargabetuta dago. Emaizta gisa, hitz egitearen ekintza *jouissance* une bat edo gozamen solasaldia bilakatzen da, non unibertsaltasun diskurtsiboa lortzen den eta desberdintasunak hedatzen diren; dena inperialismoan jokatzeko dute.

Hala ere, kafe kultura nabarmenki ahozkoa bada eta, ondorioz, askotariko praktika diskurtsiboak biltzen baditu —istorio tradizionalak, erretorikak, jakintza akademikoa, orientalismoa, istorio kontaketak, txutxu-mutxuak, izkirimiak, eta abar— badirudi kafe diskurtsoa Galdósen diskurtso naturalista bezain konplexua dela; biak polifonikoak dira. Azken finean, Galdósek ere genero gehienak desagiten ditu, ahozkoak eta idatzizkoak, polifonia konplexu batean: errealismoa, erromantizismoa, ohitura-literatura, naturalismoa, meodrama, dialektologia, eta abar. Hala ere, kapitulu bakoitzeko hasierako oharrek zehaztasunez aztertuz gero, kafe kultura eta Galdósen naturalismoaren arteko kointzidentzia dirudiena berezkoa bilakatzen da. 3. zatiko 3. kapituluko hasierako esaldiak argi dioten moduan, «Me ha contado Jacinta que una noche llegó a tal grado su irritación...» (2004: 361), Galdósek bere burua inplikatzeko duen narratibaren ekintzan eta tokian. Beste hitz batzuetan esanda, hasiera batean akats naturalista bat dirudiena Galdósen partetik (bere burua istorioan sartzea pertsonaiak ezagutzeko) kafe kulturaren efektu

zuzena bilakatzen da, istorio guztiak bertan kontatzen baitira. Beste hitz batzuetan esanda, Galdósek kafe kulturaren egitura polifoniko bat hartzen du bere eleberriarentzat, ondoren etxe burgesaren eremu etxetiarrera iristen dena (horra hor Jacintaren, emakume baten, goiko erreferentzia) eta baita publiko eta pribatuaren arteko beste eremu trantsizionalera ere: txikizkako salmentaren «tertulia».

Eleberria kafe kulturaren barruan kokatzearen azken ondorioa zera da, eleberria diskurtso polifoniko eta unibertsalista bat dela, non, alde batetik, inperialismo/kolonialismoaz eztabaidatu eta hainbat mailatan eztabaidatzen den, eta bestetik, neutralizatu ere egiten den. Labur esanda, hitz egitea eta irakurtzea jouissance inperialista moduak bilakatzen dira, honenbestez diskurtso nazionalista.

Evaristo Feijoo eta Fortunataren arteko topaketa sartzea kafe kulturaren deskribapenaren ondoren sartzea erabakigarria da zentzu horretan. Fortunatak hitz egiten duen eta istorioak trukatzeko dituen gizonezko pertsonaia bakarra da Feijoo. Aldi berean, Feijoo da Fortunata eredu edo modelo soziala bilakatzen saiatzen ez den maitale bakarra, Santa Cruz edo Maxi ez bezala. Hala ere, Feijook Fortunata moralari buruzko diskurtsoaz janzten du, katolikoa eta burgesa ez dena, edozein eduki etikoren gaineko itxura nabarmentzen duelako. Fortunatak diskurtso hori barnerantzen du, eta une horretatik aurrera, etxekotasunaren diskurtso burges etxetiarra erabiltzen hasten da (Ángel del hogar; Aldaraca, 1991) bere helburuak lortzeko. Orduan, «ideia» bat otutzen zaio, eta nahiz eta ez pertsonaiak ez kontalariak ez duten ideia azaltzen, bere ekintza eta kontzientzia subjektiboen hasiera irudikatzen du: jada ez du ahotsik gabeko mendeko subjektua irudikatzen. Hori horrela, Feijooen presentzia Galdósen autore ahotsaren *mise-en-abyme* bat da. Alde batetik, Feijoo, erretiratutako militarra, subjektu kolonialekiko desioa esperimintatu duela onartu duen bakarra da (Polinesiako emakume batekin maitemintzen da Ozeano Barean; Kuban eta Filipinetan ere egona da). Beste alde batetik, Feijoo Fortunatari ahotsa ematen dion lehenengo pertsonako subjektua da, Galdósek hirugarren pertsonan egiten duen moduan. Gainera, bai Feijoo, bai Galdós dira Fortunata modelo sozial bihurtzen ez duten bi pertsonaia/subjektu bakarrak, eta horren ordez bere mendeko estatusa onartzen dute. Feijook kafetegietan duen presentzia eskuzabal eta ulerkorrak Galdósek kafe kulturaren duen inskripzioa irudikatzen du, eta bertatik idatziko luke eleberria. Gainera, Feijook Fortunatarengana duen jokabideak Galdósek bere maitale judu Concha Ruth Morellengana zuenaren antza du, Fortunataren mendeko izaera koloniala are gehiago nabarmenduko lukeena.

Kafe kultura, beraz, eleberriaren beraren polifonia/heteroglosiaren irudikapen alegorikoa da Espainiako burgesiaren diskurtso kolonial bikoitz gisa (Ozeano Bare-Atlantiko hispaniarra/ekialdeko ipar

Europa) eta aldi berean Fortunataren bitartez bere ukapen kolonial bikoitza eragiten duena (galdutako inperioa hezurmamitzen du; bera da basati kolonial berria).

1.5 Espainiar nazionalismoa, inperialismoa eta Atlantiko Hispaniarra

Atlantiko hispaniarraren inperialismoari buruz jardun ondoren, orain Fortunataren identitatearen jatorrizko auziari helduko diot¹¹. Fortunatak desira objektu bat irudikatzen du, eta baita trauma leku bat ere Espainiako Errestaurazioko goi eta erdiko klase berrientzat. Berak hezurmamitzen ditu galdutako espainiar kolonialismoa, mendeko kultura espainiarrean duena bere aztarna bakarra, eta espainiar burgesiak ipar Europako inperialismoaren aurrean duen egoera. Desira-trauma honek erdi eta goi-erdiko klaseak egoera nazionalistan kokatzen ditu, ostera ageriko identitate osotzat josi edo zehaztea ezinezkoa da, ukapen kolonialaren emaitza baita.

Fortunatak hegemonia nazionalista bat adierazten du Espainiako erdi eta goi-erdiko klaseen onurarako, eta hauek ipar Europako kolonialismoaren antolakuntza berritik etekina aterako dute, baina baita aldi berean hura pairatu ere. Alde batetik, burgesiak ipar Europako kolonialismoaren poisizioa okupatzen du, Fortunata iraganeko espainiar subjektu kolonial gisa desiratuz. Bestetik, Fortunata espainiar kolonialismoaren gainbeheraren gunea da, egiazko hispaniarra, eta ezin da murriztu ipar Europako kolonialismoaren ordena sinbolikora. Berak «soy un ángel» dioenean eta hil aurretik bere bekatuak aitortzen ez dituenean, leku menderaezin baina argi bat duela aldarrikatzen du ipar Europako ordena eta diskurtso kolonial/inperial berrian, etxekotasun burgesa nagusi bilakatzen denean, eta aldi berean bere mendeko gehiegikeria da: krisian dagoen Espainia kolonialaren oroigarri traumatikoa. Adierazle eta adieraziaren arteko azken adostasun eza, bikoizketa errealista eta zalantza bere baitan hartuz, On Kixoteren hain antzekoa, Errestaurazioa batera mantentzen duena da eta literatura, eta bereziki eleberri naturalista bere identitate eta krisiaren azken zeinuak egiten ditu¹².

Hemeretzigarren mendeko lehen erdian erromantizismoa, ohitura-literatura, melodrama eta antzeko diskurtsoak gunea traumatiko hau irudikatzen saiatzen baziren, oraindik ere Ozeano Bare-Atlantiko hispaniarra kanpoko beste baten gisan definitzen duena (*Don Álvaro*tik, 1835, *Las mujeres españolas, americanas y lusitanas pintadas por sí mismas* arte, 1880-82), Errestaurazioaren eta naturalismoaren hasierarekin gunea hau nazional gisa barneratzen eta erreprimitzen da, mendeko femeninoaren mozorropean, eta beraz gaitzesgarria bezala itzultzen jarraitzen du, inperioaren mamua bezala. Hori horrela, estatu espainiarrak huts egiten du bere burua nazio-estatu gisa antolatzen edo, Blancoren hitzetan, nazio-

OHARRAK

11 | «The coexistence in Restoration Spain of the pre-modern and the modern... degeneration is caused by backwardness and progress in combination» (Labanyi, 2000: 204).

12 | Amaieran, Fortunatak Espainiako Errestaurazio berria gauzatzea menderaezina da edozein diskurtso espainiar nazionalistarentzat, baina, erresistentzia horren ondorioz zehazki, diskurtso nazionalista hori antolatu eta egiaztatzen du: Fortunatak ume bat erditzen du ez Jacintak ezta Juanito Santa Cruzek ere ezin dutenean kapitala edo natura ekoiztu. Fortunataren semea Santa Cruz familiaren etxean batzeak ez du arazoa ezabatzen. Fortunata hiltzen denean, bere semea elementu gaitzesgarria bilakatzen da Espainiako historiaren gunea, ipar Europako inperialismoarekin identifikatzen den Espainiako burgesiak ezabatu ezin duena, eta, gainera, nazional gisa egiaztatzeko beharra duena. Genero aldaketa emakumetik gizonera, amatik semera, modu bakarra da egiazko diskurtso burges hegemonikoa sinbolizatu eta batzeko. «El pituso» espainiar nazionalismoaren sortze-fikzio honen lehenengo subjektu nazionala bilakatzen da, Doris Sommerren neologismoa erabili badezaket. Mendeko emakume espainiarra, eta, lotura hegemonikoz, emakume guztiak, mendeko klase guztiak bezala, Espainiako proiektu nazionalistatik erbesteratuta daude, hura «erditu» ondoren: ugalketa nazionalistaren subjektu izan ondoren.

estatu inperialista gisa Errestaurazioan, ukapen kolonialak esesten baitu. Orain zeregin garrantzitsu kritikoa Ozeano Bare-Atlantikoaren trauma kolonialaren mapa marraztea edo arkeologia bat hastea da, gutxienez Errestauraziotik subjektu eta idazle hispaniarrak esesten dituen.

2. Etxeita: Euskal Literaturaren irakurketa post-kolonial-inperialista

Euskal literatura eta kulturari buruzko gehienek, ez bada guztiak, literatura Euskal Herrian gertatzen dela eta Karlismotik eta foruzaletasunetik hemeretzigarren mendeare amaierako nazionalismora doan barne logika *nazionalista* bati erantzuten diotela pentsatzen dute. Hala ere, euskal literatura modernoaren jatorriak post-kolonialista-inperialistak dira eta «ukapen koloniala»-ren kontzeptuari erantzuten diote, Abadia eta lore jokoentzako beste artikulatu batean garatu nuena (2003).

1837an, euskal literatura modernoaren sortzaileak, Irlandan jaiotako Anton Abadiak, bere etxea utzi zuen ipar Euskal Herrian eta Niloren jatorriak aurkitzera abiatu zen.

Niloren jatorriak aurkitu zituela aldarrikatu ondoren Parisera itzuli zen 1848an, eta ohorezko harrera egin ziotelaz gain Zientzia Akademiaren partaide izendatu zuten 1862an, eta lehendakari bilakatu zen 1892an. Hala ere, bere kide britaniarrek frogatu zuten bere aurkikuntzei buruzko adierazpenak ez zirela egiazkoak, Euskal Herrira zuzendu zuen bere arreta, eta, besteak beste, lehen lore jokoak antolatu zituen 1853an, Kataluniakoan (1859) eta Galiziakoan (1861) aurretik. Bere ikerketa geologiko eta linguistikoekin jarraitu zuen arren, euskal kulturarekiko zuen interesak leku garrantzitsu eta txerazkoagoa hartu zuen bere jardueretan. Lore jokoetan, ipar eta hego Euskal Herriko poeta eta bertsolariak elkar ezagutu zezaketen lehendabiziko aldiz. Emaiza gisa, Abadiak ideia politiko berri bat sendotu zuen, jatorriz 1836an Agustin Xahok artikulatu zuena («zazpi uskal herrietako uskalduner»): Euskal Herri nazionala zazpi euskal-hiztun probintzien batasun gisa, Sabino Aranaren ideien aurretik, Euskal Alderdi Jeltzalearen sortzailea. Euskal Herria zazpi probintzi gisa ulertzeak egungo euskal nazionalismoaren ideologia geo-politikoaren hegemonia osatzen du oraindik ere.

Abadiaren idazkietatik argi ateratzen dena zera da, lore jokoak ukapen kolonialaren erantzuna direla. Abadiarentzat, uskaldunak trauma kolonialaren ukapenaren ordain itzela bihurtzen dira. Uskaldunak ez dira Niloa, ez dira afrikarrak, baina hala ere. Euskal literatura modernoaren erdigunean eszenario kolonialaren ukapen itzel bat dago, beste leku batean gertatzen dena, Afrikan. Gaston

Darbouxen aipu ospetsuak dioen moduan, Abadiak euskaldunen ulermen antropologiko eta koloniala zuen: «Nous autres Basques, nous sommes un secret, nous ne ressemblons pas aux autres peuples, fiers de leurs origines et pleins de traditions nationales. Si nous avons un fondateur, un premier aïeul, c'est Adam» (1908: xxxvi).

Abadiak Euskal Herriari buruz artikulatutako ikusmolde koloniala eragin handikoa izan arren, ez zeukan lekurik hutsean. Jon Juaristik esan bezala, lehenengo Gerra Karlistaren (1833-1839) ondoren eta hemeretzigarren mendean zehar, Euskal Herriaren elementurik erakargarriena bere izaera «arkaikoa» zen, hau da, bere izaera kolonial eta aldi berean etxetiar-barnekoa. Honek euskal industria turistikoa sortzera eramán zuen, nagusi izan zena industralizazioa hasi arte Bizkaia eta Gipuzkoan 1890eko hamarkadan:

El País Vasco se convirtió así en la utopía de la España conservadora. La burguesía isabelina descubrió Vasconia como una tierra de paisajes verdes y costumbres patriarcales, muy adecuada para pasar el verano... Los vascos, que, como he dicho, habitaban un país pobre en recursos, intuyeron pronto que los pocos de que disponían —*montes, playas, manantiales, lengua y costumbres misteriosas*— podían ser razonablemente aplicados a la explotación de una nueva fuente de riquezas que sustituiría con ventaja a la deficitaria agricultura y a la siempre insegura protoindustria del hierro: *turismo*.

En esto, los vascofranceses tomaron la delantera. Las gentes distinguidas de París comenzaron a acudir a las playas vascas en los primeros años del siglo XIX (fue el mismísimo emperador Napoleón quien inauguró, en junio de 1808, la primera temporada de baños en la playa de Biarritz)... a comienzos de la Restauración europea, aristócratas ingleses y franceses se hicieron construir elegantes mansiones en Biarritz y otros pueblos de la costa vasca. (1997: 60-1, my emphasis).

Hemeretzigarren mendearen amaieran, Pierre Loti bezalako idazle frantsesek edo Madrilera joandako euskal idazleek, Antonio Trueba kasu, Euskal Herriaren bestetasun barne-kolonial edo turistikoa sakonki sendotu zuten berriki eskuratutako frantses eta espainiar burgesiaren gustu turistikoaren arabera. Loti Euskal Herria ekialdeko bihurtzeraino iritsi zen, Hugoren adibidea jarraituz (Gabilondo, 2008: 155-156).

Testuinguru honetan, euskal historia literario nazionalistak (Lasagabaster, 2002: 89-92; Aldekoa, 2004: 116-27) proposatu zuen euskal eleberria mende aldaketarekin hasi zela Txomin Agirrearekin eta *Kresala* (1902-1905) eta *Garoaren* (1907-1912) argitalpenarekin; Jose Manuel Etxeita bigarren mailako eleberrigile gisa agertzen da argi definitutako estilorik gabe. Kritikari gehienak ados badaude ere bi eleberrigileen lanak ohitura-literaturaren generoan kokatzen direla, haien desberdintasunei ez diete jaramonik egin. Bi eleberrigileek Euskal Herriaren irudikapen kolonialaren jarraipen bat artikulatzen

dute, ohitura literaturaren bidez, eta bi idazleek ukapen koloniala artikulatu dute beraien eleberrien erdiguneetan, hau da, euskal eleberri modernoaren «jatorrian». Hala ere, ukapena argiago ikusten da Etxeitaren eleberrietan, eta ez Agirrerenetan, beraz euskal eleberriaren hasiera ulertzeko bi egileak irakurtzea beharrezkoa da, bata bestearen pare. Aurrerago Etxeitaren biografiaren inguruko zehaztasun gehiago emango ditudan arren, aski izango da gogoratzea honezkero Agirre ez bezala, euskal kostaldeko herri txiki bateko apaiz zena, Etxeita Filipinetan aberastu zela, Manilako alkate eta bertako Merkataritzako Ganberako lehendakari gisa. Beraz, euskal eleberria ukapen kolonial traumatiko baten irudikapen zehatzaz hasten da, Agirre eta Etxeitaren eleberrien elkargunean azaleratzen dena.

Agirreren *Kresala* ohitura eleberri bat da, baina ahozko narratibaren ohituraren hizkuntza eta edukiez hornitzen da. Arranondo arrantzale herrixkan kokatua, eleberrian kontatzen diren hondoratze eta ekaitz batzuk ahozko ohituratik eratorriak dira. Iñaki Aldekoak dioen moduan,

“Kitolis” (cap. XI), quizá el capítulo más conmovedor de todos, cuenta la lucha agónica que mantiene el protagonista de la narración—que ha visto cómo han ido sucumbiendo uno a uno todos sus compañeros de naufragio, incluido su propio hijo—contra la adversidad de las olas y el frío de la noche. “Kitolis” funciona como un relato autónomo dentro de la trama de la novela, que manifiesta por lo demás una urdimbre endeble y sosa, sostenida apenas por un tenue hilo narrativo en torno a la pareja de Mañaxi y Anjel. (2004: 120)

Aldekoak ohitura literaturaren logika desafiatzen duen istorio bakarra estrukturaliki isolatu badu ere, eleberriak mikro-narrazio gehiago ditu, ohitura literaturatik kanpo narratiba herrikoietan eratutakoak.

Garoan, ordea, ahozko ohitura narrazio eta hizkuntza zurrunagoagatik ordezkutzen da, euskal baserria deskribatzen duena, mendietan isolatua, ideologikoki esanguratsua den moduan. Baserriak euskal nazionalismoaren imajinario politikoa irudikatzen du, baina, alabaina, aurretiko ohitura kolonialista eten beharrean jarraipen bat egiten du (*Garoaren* gertakizun batzuk Lotirengandik datoz).

Agirreren bi eleberrien arteko desberdintasuna funtsezkoa da kostaldea mugako eremua delako, lurraren eta itsasoaren arteko muga, inperioa eta kolonia, ondorioz euskal historia kolonial/inperialaren oroigarria dena. Mendia, ordea, historia horren ukapen sakonagoa da, baina, aldi berean, ukapenarekin alegiazko irudikatze sakonagoa da, eta bertan kolonialismoaren forma bakarra jada ez da historikoa, baizik eta irudikapenezkoa: euskaldunak Europako indigena misteriotso gisa irudikatzen dira, jatorrizko Europa historiatik kanpo —eta beraz, Espainiako historia kolonialetik kanpo—; hortik

sortzen da historikoa eta irudikapenezkoa ez den bere historia. Hemen ohitura literaturak bat egiten du aurretik deskribatu dudan diskurtso kolonialista turistikoarekin: hortik bere historikoa eta irudikapenezkoa ez den bere historia.

Kresalak, beraz, *indianoa* bezalako pertsonaia historikoak ditu — Ameriketatik itzultzen den etorkina— bilau gisa irudikatzen dena Euskal Herriaren historia kolonial/inperialista geldiarazi eta ukatzeko. Aldekoak dioen moduan:

La defensa de la religión, el euskera y el patriotismo son su corolario [of *Seawater's worldview*]. Sin embargo, esta concepción del mundo que busca el regazo de la tradición sufrirá el empuje destructor del presente en forma de *indianos que han perdido la fe y la lengua patrias* y los “mamarrachos” y tipos indeseables con bigote que luchan por salir de la ignorancia o por mejorar su situación y perturban la armonía idílica del país con sus blasfemias, irreligiosidad, racionalismo, ilustración, elecciones y socialismo. (2004:118-19)

Agirre ohitura eleberri bat idazten saiatu zen Bilbao inguruan bildutako langile klasetik eta Ameriketatik itzultitako etorkinetatik Arranondoko arrantzale komunitatea isolatzeko, eta, azkenik, Euskal Herriko kostaldetik euskal mendi eta baserrien irudikapen isolatuagora eramaten du. Indianoak, gizona oro har, mehatxu bikoitza irudikatzen du: bera da euskal herri txikien irudikapen «kolonial» idilikoa uzten duen arrantzale pobrea, eta kolonia «historikoetan» «lan eginez» aberats estereotipo bilakatuta itzultzen da. Beraz, oroigarri *historiko* zitala bilakatzen da, Agirreren eleberrietan, eta orokorrago, euskal ohitura literaturan topatzen dugun *irudikapenezko* kolonialismoaren kontrako zentzuan.

Agirrek ez bezala, Etxeitak hain zuzen etorkina nabarmentzen zuten eleberri sasi-autobiografikoak idatzi zituen: bere bizitzaren historia, ontzi pilotu gisa joan eta Filipinetan *indiano* aberatsa bihurtu zenekoa Mundakara, bere jaioterrira, itzuli aurretik. Haatik, Etxeitaren eleberrietan kolonialismo historikoa ukatzen da. Zehatzago, Etxeitak bere historia kolonial biografikoa ukatzen du; Filipinetako independentzia gerra kolonialen ondorioz itzuli zen *indianoaren* istorioa ukatzen du. Eraitza gisa, eta Agirreren eleberrietan ez bezala, Etxeitak ukapen koloniala burutzen du *indiano* imperialista birmoldatuz, ez kolonizatzaile gisa, baizik eta subjektu kolonial/kolonizatu gisa. Etxeitaren *indianoak* euskal natibo pobreak dira, lurralde kolonialetara emigratu dutenak aberastasun bila eta beti itzultzen direnak Euskal Herrira zentzua emateko haien subjektu izaera euskaldun, eta ondorioz, kolonialari. Beraz, Etxeitaren eremu kolonial biografikoen artean nagusia, Filipinak, baztertua aipatzen da beti, eta, horren orde, Latinoamerika post-kolonialistak ordezkaten du, non euskal-espainiar kolonialismoa 1825tik historikoki ordezkatu den. Gainera, Etxeitaren istorioetan

ez da erreferentziarik egiten ustiapen ekonomiko, zapalketa edo kolonialismoarekin lotu daitekeen edozein indarkeria motari. Bere *indianoak* lurrian lan eginez aberastu dira—langileak esplotatzen dituzten lurjabe bilakatzen diren arren; azkeneko hau zeharka soilik aipatzen da. Laburbilduz, ustiapen post-kolonialista euskal lurjabe banako subjektuaren ideologiagatik ordezkatzeko da, bere eskuekin lantzen duena lurra, baita Ameriketako ere.

Etxeitaren *Jose txo* aztertzean, Kortazarrek ondo harrapatzen du eleberraren geografia ez-ohiturazkoa, Filipinetako ukapen kolonialetik eratorria, eta baita Latinoamerika post-kolonialaren irudikapen orekatzaile edo alegiazkoa ere:

Espazioaren tratamendua ez da manikeoa, beste idazle kostunbristek ohi dutenez, esperientziari loturikoa da. *Dena dela, norberaren lurraren goraipamena egiten da, nostalgia nagusitzen delarik espazioaren tratamenduan.*

Nobela sentimentalak agintzen duen moduan, konfliktorik eza izango da nobelaren alde narratiborik ahulena; ekintzen tratamenduan ere maiz erabili izan da Jaungoikoaren izena ekintzen eragile gisa. (2013, my emphasis)

Beraz, Agirre eta Etxeitaren eleberriak Euskal Herriaren ukapen kolonialaren prozesu beraren eta horrek Espainiaren (eta Frantziaren) inperialismoan izan duen parte hartzearen bi aurpegi bezala irakurri behar dira. Etxeitak *kolonialismo historikoa* ukatzen du (bere parte hartzea Filipinetan), Agirrek, aldiz, *irudikapenezko kolonialismoa* ukatzen du (Euskal Herriaren irudikapen turistiko/natibista).

Ukapen kolonialaren bi estrategia horiek are konplexuagoak bihurtzen dira Etxeitaren biografia osoa kontutan hartzen badugu. 1886an, oraindik Manilan zegoela, Etxeitak gaztelerazko bere lehen eleberria argitaratu zuen hiri horretan: fikzio bihurtutako bere biografiaren bertsio laburra, *Amoríos de Juana y Manuel y lo que es la madre a pesar de los pesares* deitua. Eleberri honek oraindik ere Manila eta Filipinetako marinelei zuzenean egiten die erreferentzia. Haatik, 1898an Agirrek Euskal Herriaren eleberrigile karrera eleberri historikoa batekin (*Auñamendiko Lorea*) hasi aurretik idatzi zuen bere lehenengo eleberria. Agirrek *Kresala* pasartetan idatzi zuen 1902-1905 bitartean euskal egunkari batean, eta esan beharra dago 1898ko *Desastrearen* ondorio post-kolonialistekin bat egiten duela. Urte horretan bertan, Etxeita bere jaioterrira itzuli zen, eta hamaika urte beranduago, 1909an, euskarazko lehenengo eleberria idatzi zuen marinel baten bizitzari buruz, hau da, lehenago idatzi zuen gaztelerazko sasi-autobiografiaren fikziozkoagoa den bertsioa: *Jose txo*. Beraz, Etxeitak *Jose txo* (1909) idatzi zuen Agirreraren bigarren eleberraren ondoren, euskal arrantzale herri bati buruzko *Kresala* (1902-1905).

Etxeitak gaztelera euskal hizkuntza «konoliala»-gatik aldatzea bere bigarren eleberrian, Filipinei egindako erreferentziak mugakoagoak bilakatu dira eta iraganera bultzatzen zuten —heroiaren aitaren iraganera. Gainera, *Josetxoren* hedadurak bigarren mailako gertakizunak garatzea ahalbidetzen du eta heroiaren jatorri euskalduna (koloniala) zalantzan jartzen eta azkenik nabarmentzen dute. Agirrek hirugarren eleberria idatzi zuenean, *Garoa*, 1907 eta 1912 bitartean, Etxeitak idealizatuagoa eta ohiturazkoagoa zen eleberria idatzi zuen 1910an: *Jaioterri maitia*. Eleberri honek jada ez dio erreferentziarik egiten bere iragan inperialistari Filipinetan, beraz ukapen koloniala osatzen du euskal etorkina historiaz kanpoko eta irudikapenezko subjektu kolonial gisa irudikatuz: eleberria mendietan gertatzen da, Ardibaso izeneko herrixka batean. Filipinak beharrean, Mexiko bilakatzen da ukapen kolonialaren eremu berria: Ardibasoko hiru bikoteek Mexikora emigratzen dute, aberastu egiten dira eta herrixkara itzultzen dira, pertsonaia mexikarrekin modu esanguratsu batean harremanik egin gabe. Hiru bikoteek haien artean eta beste etorkin euskaldunekin soilik izaten dute harremana «Ardibaso mexikarra» soilik deitu daitekeen horretan (Veracruz en kokatua, batez ere). Labur esanda, eremu mexikar post-kolonialista ere euskaldunak bilakatzen da zeharo ukatzeko kolonialismo/ inperialismoa: Mexiko ez da Euskal Herria, baina hala ere.

Etxeitaren kolonialismo historikoaren ukapenaren garrantzia guztia ulertzeko, garrantzitsua da bere historia kolonialera jotzea, eta, zehazki, euskaldunen historia kolonialera Filipinetan. Hirurogei urteko jardura monopolistikoren ondoren Venezuelan (1728-1785), Karakaseko Real Compañía Guipuzcoanak, monopolio kolonialista euskaldun bat, Venezuelako merkatuko bere jabegoa galdu zuen, neurrigabekometodoustiatzaileengatik hein batean, eta beste merkatu monopolista batzuk bilatu behar izan zituen. Marciano de Borjak azaldu bezala bere *The Basques in the Philippines*ean, monarkia espainiarrak konpainia berari bermatu zion Filipinetako merkatu koloniala eta horrela jaio zen Real Compañía de Filipinas 1785 (2005: 66-74), «Galeón de Acapulco»-rekin lehiatu ez zuena Esperantza Oheko lurmuturretik ekialdeko bidea hartu zuelako. Ondorioz, euskal historia kolonialista Filipinetan indartu zen. Konpainia 1837an desegin bazen ere, euskal presentzia bertako elite espainiarraren artean hazi egin zen. Euskaldun batek, Antonio Ayalak, eratu eta zabaldu zuen, beste kide alemaniar eta espainiarrekin, Ayala Corporation bilakatu zena —egun oraindik Filipinetako konpainiarik handiena (De Borja, 2005: 124-27)—. Halaber, Etxeitaren biografiak berresten duen moduan, beste konpainia euskaldun batek, Olana, Larrinaga and Co.-k, Ingalaterra Filipinekin lotzen zuen itsas bide bakarraren ardura zuen. Historikoki, euskal eliteak posizio nagusia zuen Manilan, eta orokorrean, kolonia guztian. Geroago azalduko dudan moduan Rizalen lana aztertzerakoan, garrantzitsua da nabarmentzea elite hau euskaldun gisa aitortu zela bereziki (Filipinaren kolonizatzaile

espainiarra ere euskalduna zen, Lope de Legazpi).

Etxeitaren biografia garrantzitsua da euskal kolonialismoaren historia ulertzeko. 20 urterekin itsasontzi kapitain bilakatu zen eta Liverpoolen kokatutako ontzigintza konpainia euskaldunean hasi zen lanean, Olana, Larrinaga and Co.-n, Liverpool Manilarekin lotzen zuena. Etxeita azkenik konpainiaren ordezkari gisa finkatu zen Manilan eta ondoren lehendakari posiziora igo zuten. Manilako hainbat aholkularitza kabinenetan onartu zutenean, herriko merkataritza ganberako lehendakari ere izendatu zuten, eta azkenik, hiruburuko alkate. Manilan bizi izan zen 16 urtez. 1898an bere jaioterri Mundakara itzuli zen eta bertan igaro zuen bizitzaren gainerakoa (Kortazar, 1999: 8).

Lehenago esan dudan bezala, Etxeita ez zen euskaraz idazten hasi Filipinak 1898an utzi eta bere jaioterri Mundakan finkatu arte (*Josetxo* 1909; *Jaioterri maitia* 1910; *Au, ori ta bestia* 1913). Beraz euskarara aldatzeak, bertakoen hizkuntzara —bere «tagalo» euskara, hala baitzen— Etxeitak ukapen kolonialaren bere amarrua aurrera eramatea ahalbidetzen dion funtsezko trikimailu linguistiko eta literarioa da. *Josetxok* maileguan hartzen ditu aurretik gazteleraz idatzitako biografia sasi-fikziozkoaren elementuak, baina guztiz fikziozkoa bihurtzen da funtsezko elementu batean: Filipinen gabezia zelataria, eleberriaren amaieran azaleratzen dena «bai, baina hala ere»-ren fantasia post-kolonialista-inperialista zehazki osatzeko: heroiaren aita ezezaguna amaieran agertzen da berari euskal aitatasuna emateko eta aitak Filipinetan lortutako aberastasunarekin leinu burges berri (eta txiki) bat ematen dio semeari.

Josetxo eleberri eta fantasia *indianoa* da. Ijitoek protagonista, Josetxo, bahitzen dute eta pobre hazten da bere adopziozko familiarekin Mundakan. Bere trebetasun itzelei eta izaera onari esker ontzi bateko kapitain eta aberastasun txiki baten jabe bilakatzen da hogei urte betetzerako. Hondoratze baten ondorioz Argentinan agertzen da eta etxalde bateko jabe aberats euskaldunarekin izandako aita-seme harremanaren ondoren, etxaldeko arduraduna bihurtzen da eta hainbat urte beranduago herriko gizon aberatsena bezala itzultzen da Mundakara. Azkenik, haurtzaroko bere kuttunarekin ezkontzen da, asko sufritu eta jasan duena urteetan bere guraso maltzurrek egindako saiakerengatik bera beste gizon batzuekin ezkontzeko, Josetxo baino aberatsagoak zirenak herrian ondo finkatutako jatorriari esker.

Bigarren mailako sentimenduzko gertakizunak, bere bizitzan oinarritua, eta dagoeneko gaztelerazko bere lehenego eleberri sasi-autobiografikoan agertu zenak, ukapen koloniala nabarmentzen du. Joxetxo, Etxeita ez bezala, emakume «ijito» batek bahitu eta bakarrik utzi zuen; beraz, eleberriak zalantzan jartzen ditu bere jatorriak eta

aita-seme euskaldun harremana. Josetxoren adopziozko familiaren aurkakotasunaren kontra, bera emakume aberatsago batekin ezkon zedin nahi zutenak, Josetxoren neska-laguna, Eladi, bere itzuleraren zain dago fidelki bera itsasoan dabilen eta hondoratzeei bizirauten dien bitartean munduan barrena. Urrunaldi luze baten ondoren Josetxo itzuli egiten da eta, jada aberats, Eladirekin ezkontzen da. Horrela, ukapen kolonialak emoziozko eta txerazko aldaketa bat izaten du, Josetxo emakume «kolonial» zuzenarekin ezkontzen baita, zeinarekin odol lotura ere baduen: bere lehengusina da. Hemen, sasi-intzestu harremanek ukapen koloniala are gehiago nabarmentzen dute, bi heroiaren arteko maitasuna odolagatik trinkoagoa egiten baita. *Amoríos de Juana y Manuelen*, eleberriaren amaieran, amak neska-laguna ordeztu du ukapen kolonialaren azken eskari hunkigarri gisa. Josetxo azkenean bere amarengana itzultzen da.

Josetxon, protagonistak kapitain eta *indiano* gisa Atlantiko osoan zehar bidaiatzen du: Ternua, Kuba, Puerto Rico eta Argentinatik Irlanda, Ingalaterra eta Frantziara. Liverpool, Etxeitak Filipinetan lan egiten zuen ontzigitza konpainiaren kuartel nagusia, behin aipatzen da ustekabea eta Filipinak ez daude. Eleberriaren azken kapituluan, «deabruzko emakume ijituak» bere bahiketa aitortzen duenean, Josetxok azkenean bere familia biologikoa ezagutzen du. Bere aita aberatsa da Espainiako koroarentzat Filipinetan egindako lanaren ondorioz.

Mutikoau ostu orduko, illebi lenago, joan zan bere aitta Manilara, an españarrak erebillen gudura: amak naibagez beterik egin ebazan alegiñak Josetxo billatuten alde guztietatik, baña ezin izaeban idoro. Aittak, arik bosgarren urtean artu eban *Korone!* esaten eutsen agipidea: amaittu zan gudua, ta urtebete garrenean itxi eutsan gudulari izateari, ta geratu zan illaroko sari onaz, da diru apur bat esku-artean ebala.

Manilan egon zan arte, usmau eban, gauza batzuen salerosiaz, irabazi leitekeala polito dirua, ta asi zan salerosietan, eukan diruaz. Ogetabi urtetan egon zan Manilan, da etxeratu zan erdi makalik, baña diru askogaz: etxean, urtebetean jarri zan gizon ederra. (1909: 201)

Beraz, Filipinak, zentralak zirenak Etxeitaren bizitzan eta gaztelaniaz idatzitako bere fikziozko autobiografian, baztertuta agertzen dira *Josetxoren* amaieran, eta soilik Josetxoren «egiazko euskal jatorriak» argitzeko. Labur esanda, Amerikak egitearen *indiano* fantasia osoak bere eremua hertsiki Atlantikokoa eta post-kolonialista izatea behar du (errepublika latinoamerikar independenteak), bere Ozeano Bareko dimentsioa ezeztatzeko. Beste hitzetan esanda, Etxeitaren Ozeano Bareko esperientzia koloniala ezeztatu egiten da fantasia post-kolonialista-inperialista perfektua sortzeko, *indianoari* bere benetako jatorri eta identitate euskalduna ematen dion fantasia. Berea da «egiazko» hizkuntza indigena eta kolonialean, euskaraz, idatzita berriz lortu dezakeen identitatea, Filipinetako bere ukapen koloniala

aurrera eramateko Etxeitak erabilitako hizkuntza «koloniala».

Bere ukapen koloniala osatu eta Filipinak bere narratibatik ezabatzeko, hau da, historia koloniala ukatzeko, Etxeitak bere azkeneko eleberrian baserrien artzain-Euskal Herrira jotzen du, mendietan isolatua (*Jaioterri maitia*, 1910), Agirreren adibidea jarraituz (*Garoa*, 1907-1912). Haatik, kolonialismo modernoago batetik eratorritako irudikapen kolonial batek mehatxatzen du Agirreren baserrien artzain-interpretazioa, Abadiaren Afrikaren ukapen kolonialak hain zuzen, ipar Europako kolonialismo hispaniarra ez dena. Arrazoi horiengatik, Agirre eta Etxeita *kolonialismo historikoa* ukatzen saiatzen dira (kolonialismo hispaniarra Ameriketara eta Filipinetara) baina *irudikapenezko kolonialismora* hurbiltzen dira (hemeretzigarren mendeko europar kolonialismoa Afrikan, Euskal Herrira hedatu zena antropologia eta turismoaren ondorioz). Euskal eleberria, beraz, hemeretzigarren mende amaieran hasten da geografia kolonial bikoitz batean (Afrika / Amerika eta Filipinak), historia kolonial bikoitzean (hispaniarra, ipar europarra). Historia kolonial hau ukatzean, euskal eleberria eredu berri bat sortzera iristen da, euskal eleberriaren eredu «bakana» irudikapenezko kolonialismoan oinarritua: subjektu idiliko horiek, historia eta modernotasunetik ebakiak, mendiez inguratutako baserrietan bizi direnak. Aski ironikoa da eleberri mota honek ukapen kolonial bikoitz berria irudikatzen duela. Eleberriaren eredu «bakan» honek, ukapen kolonial bikoitzaren narratiba, euskal historiaren bikaintasuna berresten du berriz ere. Aski ironikoa da ez dagoela ezer euskalduna beregan: ukapenaren bidez hartzen du eredu literario honek bere ezaugarri garrantzitsuena: bere euskal ezezkotasuna. Kolonialismoaren historia ukatuz bilakatzen da euskalduna, eta hori eginez, bere historia ere ukatzen du. Geratzen den alderdi historiko bakarra ukapenaren irudikapenaren historia bera da: ukapenaren historia.

3. Ukapen koloniala Filipinetan

Jarraian datorrenak berezko ikerketa bat eskatuko luke, beraz kolonietako, Filipinetako, ukapen kolonialaren historia berriaren koda edo hasiera gisa balioko du. Testuinguru honetan, Rizalen *Noli me tangere*, Filipinetako nazio-eleberria, hasierako puntua besterik ez da.

Rizalek bere eleberrian bere izaera koloniala ukatzen duen modua ulertzeko, garrantzitsua da nabarmentzea protagonistaren, Ibarraren, euskal jatorria gaitzat hartzen duela bere birraitona zenaren, Eibarramendiaren, biktimetako bat ezagutzen duenean, Elias. Eliasek Ibarrari bere jatorriei buruz galdetzen dio:

Was your family acquainted with don Pedro Eibarramendia?
“I should say so» answered Ibarra, as he opened a chest and took out a bundle of papers «he was my great grandfather»
Your great grandfather Ibarramendia? again asked Elias with changed and livid features.
“Yes» replied Ibarra absently «we shortened the surname: it was too long»
“Was he a Basque?» demanded Elias, approaching him.
“Yes, a Basque—but what’s the matter? asked Ibarra in surprise
... don Pedro Eibarramendia was the villain who falsely accused my grandfather and cased all our misfortunes. (1912: 418)

Rizalek ez zuen kasualitatez egin bere eleberriko alter egoa euskal jatorria duen filipinarra. Rizal ere, independentzia prozesuarekin gatazka harremana zuen intelektuala, ukapen kolonialari ekiten dio. Euskaldunek, Filipinetako elite kolonial espainiarretako bat, Gaztelako/Espainiako inperialismoaren sorkuntzaren aurretik «subjektu kolonialak» ere badirenak, puntu itsu bat irudikatzen dute, puntu traumatiko bat non kolonialismoa onartu eta ukatu daitekeen identifikazioaren bidez. Manilako euskal eliteak kolonitzailea irudikatzen du, baina baita euskal kolonialismoaren historia ere subjektu-natibo gisa espainiar inperioan.

Haatik, Rizalen ukapen kolonialak Filipinetan oso eragin desberdina izan zuen aztertu dudana Galdós eta Etxeitarenetik. Vicente Rafealek adierazi bezala:

Speaking Castilian and seeking to assimilate as Spanish citizens, Filipino nationalists were instead regarded as *foreigners* and thieves by crowds in Spain and colonial authorities in the Philippines. Taking on that *foreignness*, they threatened to return it to its *source*. Rizal saw that such exchanges might well lead to uncontrollable violence. Usurping the law, nationalist vengeance threatened *to replace the terror of colonial rule with its own*. Rizal thus called for the sublimation of vengeance into sacrifice at the end of his book. (2005: 66, my emphasis)

Rafealek «sakrifizio sublimazioa» deitzen dion horrek ukapen kolonial eredu bat irudikatzen du, Rizalek gauzatzen duena natiboa den kanpotar batekin identifikatuz: Ibarra euskalduna. Filipinetako historiografia nazionalistak Rizalen lana eta bizitzaren jabetza hartu baditu ere (heroi nazionala), ukapen kolonialak leku (edo ez-leku) gaitzesgarri batera darama, bere itxierari uko egiten diona eta kolonialismoaren historia traumatikoaren oroigarri bihurtzen dena. Ibarra euskaldunak, bere genealogiarengatik, posizio hori betetzen du eta Rizalen ukapen koloniala pertsonifikatzen jarraitzen du. Alde batetik, «indarkeria kontrolaezina» egiteko gai den natiboa da. Bestetik, proiektu kolonialarekin parekatu nahi du baina ez da gai eta kanpotar izaten jarraitzen du. Rafealek ondorioztatzen duen bezala,

This is, in a way, Rizal’s ‘crime’ as well. He leaves behind *foreign* traces that cannot be fully *domesticated*. These stories release remainders that

cannot be accounted for and can hardly be taken up for nationalist uses. They deposit a surplus of pleasure that is also a source of befuddlement and thereby eludes domestication. They thus keep open still other lines of interpretation past those that lead to revolution, counterrevolution, and collaboration. (2005: 95, my emphasis)

Rizalen euskaldun Ibarra, agian, kanpotarra izatearen seinale nagusia da, eta ezin da diskurtso filipinar nazionalistarekin parekatu. Haatik, beste interpretazio lerro batzuk irekita mantentzen ditu, Ozeano Bare-Atlantiko hispaniar ardatza eskatzen dutenak bere onarpen/ukapen kolonialaren tokian.

4. Ozeano Bare kolonialaren desagertze buruz

Artikulu honi hasiera ematen dion Franken aipuak adierazten duen bezala, Ozeano Bare hispaniarra, Atlantikoa ez bezala, hasieratik bigarren mailako gisa irudikatu den eremu bat da, osagarria; azkenean, eremu autobaztertzalea bilakatzen da bi estatu post-kolonialentzat, Filipinak kasu, eta baita estatu post-inperialistarentzat, Espainia kasu, edo baita menderatutako nazionalismo eremuentzat ere, Euskal Herria kasu. Robert R. Ellisek adierazi bezala, Ozeano Bare hispaniarra, Filipinak epizentro zuela, ekialdearen eta mendebaldearen, orientalismoaren eta okzidentalismoaren arteko banaketa desafiatu zuen tarteko eremua zen.

When writing about Asia, early modern Spanish writers tend not to depict a unified geographical and cultural space but rather nations [...] Within Spanish experience and discourse, however, all of these regions were united through the Philippines, the base of Spanish operations in the entire western Pacific. [...] the early modern Spanish writers I discuss all travelled westward to Asia, passing through Mexico and stopping in Manila, even when the Philippines was not their final Asian destination. Both administratively as well as conceptually, Spain regarded the Philippines as the *westernmost* extension of its vast American empire rather than a discrete Asian colony. (2012: 17-18, my emphasis)

Beranduago, Filipinetako Errege Konpainiarekin batera, kolonia Esperantza Oheko lurmuturrean barrena zijoan bide berrian ekialdeen zegoen puntua bilakatu zen. Haatik, bere nolokotasun autobaztertzaleagatik zehazki, espainiar kolonialismoan mendebaldean eta ekialdeen zegoen kokapena bilakatzen zuena, ukapen koloniala aztertu daitekeen puntu zentrala ere bilakatu zen, Espainiako historia inperialistaren edozein jabetze hispanista deszentratu eta zatikatzearekin batera. Espainiar historiografiak kontatu bezala, Espainiaren hemeretzigarren mendeko historiak, etenik gabe, Napoleonen kontrako Independentzia Gerratik (1808-1814) espainiar osaketa nazionalista eta kultura literaria garrantzitsuak, Errestaurazioan (1872-1910). Kontakizun historiografiko honek historia eta irudikapen kolonial espainiarra ukatzea onartzen du,

eta, beraz, nagusiki hispaniarra ez den geografia atzeraeraginezko moduan barneratu eta birzentratzen da. Beraz, Ozeano Bare hispaniarraren artikulazio global eta post-hispaniar berri bat abiarazi behar da bere kontra, bere izaera autobaztertzailera erabiltzeko errealitate nazionalen kontra, hala nola, espainiarra, filipinarra edo euskalduna, edo baita «Atlantiko hispaniarra» ere. Horrela, joera hispaniar nazionalistaren desberdina den historia bat idatziko da modu trans-post-kolonial-ozeaniko batean, Frankek artikulatu honen hasierako aipuan marraztu duen geografia konplexu oroitarazten diguna, baina Manilak oraindik espainiar inperialismoaren azken lekua izaten jarraitzen duena.

Bibliografia

- AGUIRRE, T. (1898): *Aunamendiko Lorea*. Klasikoen Gordailua. <http://klasikoak.armiarma.com>.
- AGUIRRE, T. (1906): *Kresala*. Klasikoen Gordailua. <http://klasikoak.armiarma.com>.
- AGUIRRE, T. (1912): *Garoa*. Klasikoen Gordailua. <http://klasikoak.armiarma.com>.
- ALDARACA, B. (1991): *El Ángel del Hogar: Galdós and the Ideology of Domesticity in Spain*. Chapel Hill, NC: North Carolina Studies in the Romance Languages and Literatures.
- ALDEKOA, I. (2004): *Historia de la literatura vasca*. San Sebastian: Erein.
- BLANCO AGUINAGA, C. (1978): *La historia y el texto literario: 3 novelas de Galdós*. Madrid: Nuestra Cultura.
- BLANCO, A. (2012): *Cultura y conciencia imperial en la España del siglo XIX*. Valencia: Publicacions de la Universitat de València.
- DE BORJA, M. (2005): *Basques in the Philippines*. Reno: University of Nevada Press.
- CASILDA BÉJAR, R. (2002): *La década dorada. Economía e inversiones españolas en América Latina 1990-2000*. Madrid: Universidad de Alcalá.
- CHARMON-DEUTSCH, L. (1990): *Gender and Representation: Women in Spanish Realist Fiction*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins.
- CONRAD, J. (2000): *Joseph Conrad: Heart of Darkness*. New York: Columbia University Press.
- DARBOUX, G. (1908): "Notice historique sur Antoine d'Abbadie." *Mémoires de l'Académie des sciences de l'Institut de France*. Vol. 50. Paris: Gauthier-Villars. i-xlii
- ELLIS, R. (2012): *They Need Nothing: Hispanic-Asian Encounters of the Colonial Period*. Toronto: University of Toronto Press.
- ETXEITA, J. M. (2003): Una Aproximación a la biografía de José Manuel de Etxeita. Y Los amoríos de Juana y Manuel. Urdaibai: Urdaibai Txatxi.
- ETXEITA, J. M. (1909): *Josetxo*. Klasikoen Gordailua, <http://klasikoak.armiarma.com>.
- ETXEITA, J. M. (1910): *Jaioterri maitia*. Klasikoen Gordailua, <http://klasikoak.armiarma.com>.
- ETXEITA, J. M. (1913): *Au, ori ta bestia*. Klasikoen Gordailua, <http://klasikoak.armiarma.com>.
- FRANK, A.G. (1998): *Reorient: Global Economy in the Asian Age*. Berkeley: University of California Press.
- FREUD, S. (1949): *An Outline of Psycho-Analysis*. New York: Norton and Co.
- GABILONDO, J. (2008): "Imagining the Basques: Dual Otherness from European Imperialism to American Globalization." *Revista Internacional de Estudios Vascos: Imagining The Basques. Foreign Views of the Basque Country*. Eds. Jeremy MacClancy and Santiago Leoné. Monograph 2 145-173.
- GABILONDO, J. (2003): "Euskal literatura modernoaren sorrera postkolonial eta gayaz. Anton Abbadieren ekarpena birpentsatuz." In . Arkotxa, A. and Otegi, L. eds. *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian* 14.2, 81-88.
- GILMAN, S. (1981): *Galdós and the Art of the European Novel: 1867-1887*. Princeton, NJ: Princeton University Press.
- GILROY, P. (1993): *The Black Atlantic: Modernity and Double Consciousness*. Cambridge: Harvard UP.
- GUINOT AGUADO, M. and VAKULENKO, D. (2012): "Spanish Entreprises Need Latin America for Economic Expansion." 8-6-2012. *Council on Hemispheri Affairs*. <http://www.coha.org/18472/>. 3-23-2013
- JAGOE, C. (1994): «The Angel in Mind: Rereading Fortunata y Jacinta.» In *Ambiguous Angels: Gender in the Novels of Galdós*. Berkeley: University of California Press. 102-119.

- JUARISTI, J. (1997): *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*. Madrid: Espasa Calpe.
- KORTAZAR, J. (1979): «Notas sobre la novela de José Manuel Etxeita (1842-1915)». *FLV*, 33, 551-557.
- KORTAZAR, J. (1999): *Jose Manuel Etxeita*. Bilbo: BBK Fundazioa.
- KORTAZAR, J. (2008): "Jose Manuel Etxeitaren (1842-1915) nortasun analisia, bere gutunen bidez." *RIEV*, 53-2, 475-505.
- KORTAZAR, J. (2013): "Josecho (1909)." *Euskal Literaturaren Hiztegia*. EHU-Euskara Institutua. <http://ehu.es/ehg/literatura/?p=710>. 3-11-2013.
- KRONIK, J. (1985): "Feijoo and the Fabrication of Fortunata." In Goldman, P.E. ed. *Conflicting Realities: Four Readings of a Chapter by Pérez Galdós: (Fortunata y Jacinta, Part III, Chapter IV)*. London: Támesis. 39-72.
- LEBANYI, J. (2000): *Gender and Modernization in the Spanish Realist Novel*. Oxford, UK: Oxford University Press.
- LEBANYI, J. ed. (1992): *Galdós*. London: Longman.
- LACAN, J. (1966): *Écrits*. Paris: Seuil.
- LACAN, J. (1975) : *Le séminaire. Livre XX. Encore*. Paris: Seuil.
- LASAGABASTER, J.M. (2002): *Las literaturas de los vascos*. Donostia: Universidad de Deusto.
- MCCLINTOCK, A. (1995): *Imperial Leather: Race, Gender, and Sexuality in the Colonial Conquest*. New York : Routledge.
- MERIMÉE, P. (1996) : *Carmen*. Paris: Librairie générale française.
- MÚGICA, G. (1915): «Don José Manuel de Echeita». *Euskal Etnalea*, 50-56.
- ORTEGA, J. (2003): "Post-teoría y estudios transatlánticos." *Iberoamericana* 3.9, 109-117.
- PÉREZ GALDÓS, B. (2004): *Fortunata y Jacinta: Dos historias de casadas*. Madrid: Edimat.
- RAFAEL, V. (2005): *The Promise of the Foreign: Nationalism and the Techniques of Translation in the Spanish Philippines*. Durham, NC: Duke University Press.
- RESINA, J.R. (2009): *Del hispanismo a los estudios ibéricos. Una propuesta federativa para el ámbito cultural*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- RESINA, J.R. (2013). *Iberian Modalities: A Relational Approach to the Study of Culture in the Iberian Peninsula*, Liverpool, Liverpool University Press.
- RIZAL, J. (1912): *The Social Cancer: A Complete English Version of Noli Me Tangere from the Spanish of José Rizal*. New York: World Book Co.
- SINNIGEN, J. (1992): «Individual, Class and Society in Fortunata and Jacinta.» In Labanyi. (1992): 116-39.
- SINNIGEN, J. (1996): *Sexo y política: lecturas galdosianas*. Madrid: Ediciones de la Torre.
- SOMMER, D. (1991): *Foundational Fictions: The National Romances of Latin America*. Berkeley: University of California Press.